



VITORIA-GASTEIZKO UDALAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEI ZUZENDURIKO HIRI-HONDAKINEN INGURUKO BIRZIKLAPEN KANPAINA (2025-2026 ikasturtea)

1. Sarrera

Ingurumen-hezkuntza prozesu jarraia da eta ikasleria gaur egungo eta etorkizuneko etxeetako hondakinen kudeatzailea izango dela kontutan hartuz, hondakinak modu egokian sailkatzearen garrantziaz jabetzeko eta eskola komunitateak dituen zalantzak argitzeko, Vitoria-Gasteizko udalak ikastetxeei zuzenduriko kanpaina berrantolatu du. Aurtengoa IV.edizioa izango da.

2. Helburu orokorrak

- Hiri-hondakinen inguruko hierarkia ezagutzea: **murrizketa, berrerabilera eta birziklapena** azpimarratuz.
- Guztiok hondakinen arazoen konponbidean dugun protagonismoaz jabetzea, hau da, hondakinen sorreran, berrerabileran eta gaikako bilketan parte hartzeak, norberak duen garrantziaz eta hondakinek suposatzen duten arazoaz **kontzientziaztea eta sentsibilizatzea**.
- Partaideen artean, estimulu bat sortaraztea, **jokabide-ohituren aldaketa** eman dadin, murrizketa lehenetsiz eta sortutako hondakinak modu egokian banatuz.
- Ikas komunitate osoan, **hondakinen sailkapen egokiaren aldeko konplizitatea lortzea**, kontzienteki parte hartzen duten ingurumen kultura berriaren bozeramailea eta eragile biderkatzaile bihurtuz.

3. Hartzaileak

Ingurumen hezkuntzako kanpaina honen hartzaile zuzenak Vitoria-Gasteizko bigarren hezkuntza eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleak dira, zehazki, Bigarren Hezkuntzako 3 edo 4. mailako ikasleak eta Lanbide Heziketako 1.mailakoak.

4. Kanpainaren garapena

Kontsumo jasagarria eta sortutako hondakinen inguruko tailer praktiko bat egitea da proposamena. Tailerrak ondorengo ezaugarriak izango lituzke:

- Iraupena: Ordu t'erdi
- Lekua : ikasgela
- Metodologia : Partehartzailea
- Edukiak :
 - Sarrera
 - Murrizketa
 - Salmenta teknikak
 - Kontsumo arduradun baten jarraibideak
 - Goazen erosketak egitera
 - Berrikuspena taldean



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ecoembes
Lankidetzaren indarra



ECOVIDRIO

- Berrerabilera
 - Irudien ikuskaketa
 - Bateratze-lana
- Birziklapena
 - Jakingo al zenuke hondakin bakoitzaren helmuga zein den ?
 - Errepaso orokorra eta akatsen zuzenketa
 - Edukiontzari ondorengo bizitza : produktuen bizi-zikloa

Oharra : Saioen iraupenari dagokionez, ordu erdiko gora-behera ikastetxe bakoitzak duen antolaketaren arabera da (jolasgariak, ordutegiak...) eta osatuko dugun behin betiko egutegiaren arabera.

5. Material didaktikoa

Kanpainari balio erantsia ezarriko dio irakasleei zein ikasleei zuzenduriko hezkuntza materiala baneratzeko. Ikastetxe guztiek hezitzaileek egindako bisita ondorenean ikasle zein irakasleen materialak lantzeko aukera izango dute. Proposatutako material guztiak formatu digitalean topa daitezke kanpainarako sortutako webgunean.

<https://gasteizhondakinak.eus>

6. Hizkuntzaren trataera

Kanpainarako sortuko den material guztia elebiduna izango da. Ikastetxeko arduradunek erabakiko dute jarduerak eta unitate didaktikoak zein hizkuntzetan landuko diren.

7. Aholkularitza zerbitzua

Kanpainan zehar, parte hartzen duten irakasleei bereziki zuzenduriko aholkularitza zerbitzua dago. Modu honetan, irakaslea animatu eta gaia gure bisita aurretik edo ondoren lantzen jarraitzea da asmoa. Horretarako kanpainako telefonoa (685.738.123) edo helbide elektronikoa (gasteizbirziklapena@artelatz.eus) izango dute.

8. Izen-ematea eta lehentasuna

Izen-ematea telefonoz, posta elektronikoz edota webguneko galdetegia osatuz egingo da. Lehentasuna izen-emate ordenaren arabera izango da.

Izen-emate epea: AZAROAK 30

<https://gasteizhondakinak.eus/izen-ematea-inscripcion/>

9. Kanpainaren garapena

Kanpaina, 2025-2026 ikasturteko 2. hiruhilekoan burutuko da, zehazki, urtarrilaren 19tik aurrera. Salbuespenak egon daitezke ikastetxearen arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko irailean